ALDAKETAK ZUMARRAGAKO ELIZAN: ZAHARRAK BERRI ALA BERRIAK ZAHAR?

·Zuek bai jakin!: Julian Irizar **·Elkarrizketa:** Sabino San Vicente **·Izerdi patsetan:** Sebas Landa **·Boteprontoan:** Jabier Ugarte

Herri Aldizkaria

Otamotz

2011ko urria
171. alea

legauto
www.legauto.net

-Mekanika orokorra
-Karrozeria
-Ordezkapen autoak
-Zerbitzu berria: garbiketa integrala
-Nissan autoak eta bigarren eskuko autoak

Urretxuko errepidea - LEGAZPI
Tel.: 943 73 35 95 - Fax: 943 73 16 59
legauto@teleline.es

NISSAN

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Mikel - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Aldaketak Zumarragako elizan: zaharrak berri ala berriak zahar?

9 **Zuek bai jakin!**
Julian Irizar

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Ardo dastaketak modan daude.
Ardoa gustatzen al zaizu?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

16 **Klik eta klik**
Javi Alonso

19 **Elkarrizketa**
Sabino San Vicente

23 **Gure gomendioa**

25 **Izerdi patsetan**
Sebas Landa

28 **Gure aholkuak**

29 **Argazki zaharra**

30 **Boteprontoan**
Jabier Ugarte

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Zaharrak berri ala berriak zahar?

Zumarragako Andre Maria Jasokundeko parrokian aldaketa garaia da. Urte luzeetan Luis Mari Segurola eta Esteban Barrena izan dira bertako arduradun nagusiak, baina Barrena uztailean joan zitzaigun eta orain Segurolak erretiroa hartu du. Bere tokia Pedro Laskurain soraluzetarrak hartu. El Salvadorreko parroko berriaren, Juan Miguel Rodriguez kubatarraren, laguntza izango du. Hiruekin hitz egin dugu.

Juan Miguel Rodriguez, Luis Mari Segurola eta Pedro Laskurain Zumarragako eliza aurrean.

Pedro Laskurain: "Iraultza Jesukristok egin zuen, gu ebanjelioa predikatzera gatoz"

Pedro Laskurain soraluzetarra Andre Maria Jasokundekoaren elizako parroko berria da eta Juan Miguel Rodriguez kubatarra El Salvadorrekoa. Lehena euskaldun peto-petoa da eta bigarrenak euskaltegian izena eman du. Biek Toledoko seminarioan ikasi zuten. Laskurainek 41 urte ditu eta Rodriguezek 36.

Nolatan erabaki zenuten apaiz egitea?

Juan Miguel Rodriguez (J.M.R.): Familia katoliko batean jaio nintzen. Kuban eliza katolikoa oso jazarria dago eta gure erlijiotasuna etxe barruan bakarrik lantzen genuen. Oso gutxitan joaten ginen mezatara eta ezkutuan egiten genuen. Aste Santuan bakarrik joaten ginen. Baina amaren aldeko aitonak oso fededunak ziren eta otoitz egiten irakatsi didaten. Umetatik bizitza erlijiosoa gustuko nuen eta Aita Santuak Kuba bisitatu ondoren jendeak beldurra galdu zuen. Elizak betetzen hasi ziren eta, Fisika ikasi nuen arren, bizitza erlijiosoak erakarri egiten ninduen. Gotzainarekin hitz egin nuen eta 2000. urtean Toledoko seminariora bidali ninduen. Ordutik han izan naiz. Hau da nire lehen parrokia, arduradun bezala behintzat.

Zer pentsatu zenuen Zumarragara etorri behar zenuela esan zizutenean?

J.M.R.: Zumarraga ezagutzen nuen, seminarioan hemengo jendearekin egon bainintzen eta ia urtero bisitatzen bainituen. Bizitza pastorala ezagutu nahi nuen, nahiz eta eskolak ematen ere gustura nengoen. Zumarragan oso ondo hartu naute, nahiz eta batzuek hona nentorrela jakin zutenean zoratuta nengoen galdetu zidaten. Zergatik? Toledon apaiz asko daudenez, oso babestuak gaude. Hemen apaiz gutxiago daude eta zailagoa da bizitza izpirituala eramatea.

Zein da zure lehen inpresioa?

J.M.R.: Jendea oso irekia da eta ondo hartu nau. Gainean ditut zer behar dudan galdezka. Aldaketa handia da, baina gustura nago. Hemendik kanpora Euskal Herriari buruzko albiste dramatiko samarrak ematen direla iruditzen zait. Hemen normaltasunez bizi dela ikusten dut.

Zer diozu zuk, Pedro?

Pedro Laskurain (P.L.): Ni ere familia katoliko batean hezi naiz. Umetatik eliza zer den eta otoitz egiten irakatsi zidaten. Bizimodu normala eraman nuen: Soraluzeko ikastolara joan nintzen, ondoren Bergaran Batxilergoa egin nuen... Nerabearoan, gainontzeko guztiek bezala, gurasoengandik eta eurek irakatsitakoarengatik urrundu nintzen. Dena den, ez nuen elizarekin erabat moztu. Igandeetan mezatara joaten nintzen. Ingeniaritza ikasten hasi nintzen, baina ostalaritzan lan egiten nuen eta utzi egin nuen. Ondoren delineatzaile ikasi nuen Eibarren. Ordurako gazte kristauekin eta apaizekin harremana nuen eta bizimodu kristauan murgildu nintzen: topaketak, irteerak, erromesaldiak... Aita Santuarekin Polonian, Parisen, Erroman eta Toronton izan nin-tzen, besteak beste. Jaunak apaiz izateko deitu egin ninduela sentitu nuen eta 23 urterekin Toledoko seminariora joan nintzen. Bost urte eman nituen bertan ikasten. 120 apaizgai geunden eta giro oso jatorra genuen. Ondoren Nafarroara etorri nintzen, apaiz euskaldunak behar baitziren. Beran, Zugarramurdin, Olaztin eta Lesakan izan nintzen. Etxean bezala sentitu nintzen, baina aita apaiz egin aurretik hil zen eta amak gertu behar ninduen. Hori dela eta, gotzainari Gipuzkoara etorri nahi nuela esan nion. Primeran hartu naute.

Zergatik joan zinen Toledoko seminariora eta ez Donostiakora?

P.L.: Toledora 1993an joan nintzen eta garai hartan Donostian bizpahiru apaizgai bakarrik zeuden. Apaiz egitea erabakitzen dugunean hezi beharra dugu. Unibertsitatera joatea bezala da. Formazioa ez da intelektuala bakarrik, gizatasunean eta izpiritualki ere formatu behar da. Horretarako giro egokia beharrezkoa da. Komunitate bateko kide izatea garrantzitsua da eta Donostiara joanez gero pisu batean bizi beharra nuen. Toledon, berriz, 120 apaizgaiz osatutako komunitatea zuten. Giroa aberatsagoa da, mundu osoko apaizgaiak baitaude. Horrek ikuspuntu aberatsagoa eskaintzen du. Toledora joanez zenbait gauza ere galdu nituen, noski: Gipuzkoan gelditu izan banintz hemengo diozesia gertutik ezagutzeko aukera izango nuen. Dena den, Toledon nengoela banuen hemengoaren berri: sarritan etortzen nintzen, Soraluzeko parrokoa-

rekin harremana nuen... Hori dela eta, badakit nora etorri naizen.

Toledoko seminarioak ez du ospe ona euskaldun askoren artean.

P.L.: Kontserbadorea dela diotelako al diozu? Diozesiak eta apaizak kontserbadoreak edo aurrerakoiak direla esateko joera dago, baina nire ustez eliza eta apaizak kontserbadoreak zein aurrerakoiak gara. Lehengoa kontserbatu beharra dugu, Jesukristok irakatsi ziguna, baina aldi berean aurrera egin beharra dugu. Gipuzkoako elizaren errealitatea ez dut sakon ezagutzen oraindik, baina irakatsi zidatena ikusi dudala iruditzen zait. Toledoren eta Gipuzkoaren arteko aldeak? Itxurazkoak gehiago dira, beharbada. Han apaiz gehienek cleryman jantzia daramate eta hemen ez. Alde estetiko hori egon badago, baina garrantzitsuena ebanjelioa jarrai-tzea da.

Zuen sermoiak Luis Marirenen antzekoak dira, beraz. Ez zatozte ezer aldatzera.

P.L.: Hala da. Iraultza Jesukristok egin zuen, gu ebanjelioa predikatzera gatoz.

J.M.R.: Kontua jaso duguna mantentzea da. Ez dugu ezer asmatu behar. Jesukristoren garaitik datorren tradizioa jaso dugu eta elizaren esentziari fidela izatea da kontua.

Zer moduz Luis Marirekin?

P.L.: Izendatu eta egun gutxira deitu egin nion eta primeran hartu ninduen. Denetan lagundu nau. Urretxuarra denez hemen gelditu da bizitzen eta apaizetxean bizilagunak gara. Ni amarekin bizi naiz etxebizitza batean eta bera ondokoan. Bera hemen edukitzea oso lagungarria da niretzat. Pagotxa.

Luis Mari eta biok bizilagunak zaretela esan duzu.

P.L.: Hala da. Apaizetxe zaharra zegoen tokian eraikin berria egin zen eta beheko solairua eta hiru etxebizitza txiki eman zizkiguten.

Zumarragarrei zer edo zer esan nahi al diezue?

P.L.: Ilusio handiarekin eta lan egiteko eta zerbitzatzeko gogoarekin etorri naiz. Guztiak ezagutu nahi ditut banan-banan: parrokian lan egiten dutenak, mezatara

Juan Miguel Rodriguez: "Hemendik kanpo Euskal Herriari buruzko albiste dramatiko samarrak ematen dira"

etortzen direnak, katekesiko haurren gurasoak eta bereziki adinekoak. Euren etxeetara joan nahi dut. Behar den horretan guztian laguntzeko prest nago.

J.M.R.: Zerbitzatzera eta ematera etorri naiz. Apaiz ona izan nahi dut. Baina jasotzera ere banator: hemen giza aberastasun handia eta nik ere aberastu nahi dut.

Nola ikusten duzu elizaren etorkizuna?

P.L.: Egoera zein den argi eta garbi ikusten da. Igandeko mezak ikustea besterik ez dago. Eliza bete egiten da, baina ia denak adinekoak dira. Dena den, katekesiko haurrentzat beste meza bat egiten dugu eta orduan ere eliza bete egiten da. Baina egia da adin tarte bateko jendea parrokiatik aparte bizi dela. Sekularizazioak indar handia du gure gizartean eta hori kezkagarria da guretzat, baina erronka ere bai. Jende horrengana guztiarengana heltzen saiatu beharra dugu. Horretan gaude, baina ez gara Superman eta ez dugu errezeta magikorik. Baina umiltasunarekin eta lanarekin eta ebanjelioari fidel izanez lortuko dugula uste dut. Ebanjelioa transmititzen jakin behar dugu eta eredu izan behar dugu. Gainontzekoa Jainkoak egingo du. Kezkatuta gaude, baina itxaropentsu.

Luis Marik aholkurik eman al dizue?

P.L.: Heldu naizenetik ia egunero eskatu diot aholkuren bat. Berak ez dit aholku berezirik eman. Ni naiz, modu naturalean, galderak egiten dizkiona. Berak pozik nagoen eta ondo sentitzen naizen galdetzen dit sarritan.

Zein zaletasun dituzue?

J.M.R.: Irakurtzea, kirola egitea eta musika entzutea gustatzen zait. Musika klasikoa atsegin dut batez ere. Kirolari dagokionez, korrika egitea gustatzen zait.

P.L.: Nik ere musika atsegin dut, baina ez dut gaitasunik. Toledon euskalduna izanik abesten jakingo nuela esan zidaten eta eskema guztiak hautsi nizkien. Bestelakoan kirola asko atsegin dut. Umetan futbolean eta pilotan asko jokatzen nuen. Herriarteko pilota txapelketa jokatu nuen Soraluzerekin. Kirol guztiak atsegin ditut, baina azken urteotan apenas egin dudan kirolik. Zumarragan ohitura hori berreskuratu nahi nuke. Futbitoan jokatu ahal izatea, adibidez, bikaina izango litzateke. Saskibaloian eta palan ere aritutakoa naiz eta Realaren partidak ikustea atsegin dut. Teknologia, lantxoak egitea, ere gustuko dut.

Luis Mari Segurola: "Ez nago parrokia behar bezala eramateko moduan, Estebanen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke"


Luis Mari Segurola Zumarragako Piedad kalean.

Segurola Zumarragan jaio zen, baina lau hilabete zituenean bere familia Urretxura joan zen. Soraluzen, Eibarren eta Eskoriatzan lan egin zuen Zumarragara etorri aurretik.

Zer moduz?

Ea behingoz zuekin bukatzen dudan, dagoeneko kazetariez kokoteraino nago eta. Gaur *Urola Telebista* ere etorri zait, lehengoan *Hitza*, aurrekoan *El Diario Vasco*... Hemen nabil, nire kaxkartasuna erakusten...

Zergatik erretiratu zara?

Dagoeneko hamabi ebakuntza egin dizkidate, asma ere badut... Iaz erretiratu nahi nuen, baina gotzainak jarraitzeko eskatu zidan. Erretiroa aurten eman didate eta horrek asko pozten nau. Nik eskatu dut, baina abenduan 75 urte bete behar ditut eta apaizok adin horrekin hartzen dugu erretiroa. Hori bai, gotzainak gogoz ondo ikusten bagaitu, luzatzen saiatzen da.

Gotzainak jarraitzeko eskatu zizula esan duzu. Estiman zaitu beraz...

Horixe. Jarraituko nuela esan nion eta eskertuko zidala pentsatzen dut. Baina jada ez nago Zumarragako parrokia behar den bezala eramateko moduan. Estebanen laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke. Liturgia, Caritas, haurren katekesia, konfirmazioa, batzarrak, umeen gurasoekin bilerak... parrokia batean jendeak uste baino lan gehiago dago. Gainera, hiletetan senitartekoek hau edo bestea egitea nahi dute, guk gure arauak ditugu eta jendeari ezetz esatea dagoeneko oso gogorra egiten zait. Zumarragara 60 urterekin etorri nintzen eta orduan indartsu ikusten nuen neure burua oraindik.

Herrietako apaizen bizitza ez da, beraz, Pernando Amezketarraren istorioetan ageri dena bezalakoa.

Horrek mina eman izan dit beti. Soraluzen bost abade ginen eta goiz guztia Batxilergo eskolak ematen pasatzen nuen. Ez nuen batere kobratzen, gurasoek irekitako eskola berezi bat baitzen. Arratsaldean pastoral lana egiten nuen. 34 urterekin Eibarko San Pioko parroko izendatu ninduten. Han ere eskolak eman nituen eta pastoral lana handia zen. Mugimendu handia zegoen, garai korapilatsua zen... Gure lokalean askatasunaren alde zeuden guztiak sartzen ziren eta kartzelara joatea tokatu zitzaidan. Ondoren 9 urte eman nituen Eskoriatzan. Han ere eskolak eman nituen. Azkenik, 14 urte eman ditut hemen. Oso gustura nago hemengo jendearekin eta giroarekin. Uriarte gotzain ohiak hau oasia zela esaten zigun.

Nola oroitzen duzu Zumarragara iritsii zinen garaia?

Ilusioz etorri nintzen, nahiz eta 60 urte nituen jada. Esan bezala, orduan indartsuago ikusten nuen neure burua. Urte batzuetan gazteekin lan egin nuen, konfirmazioko lana aurrera eramaten. Elbarrituekin ere lan egin genuen.

Zer moduz moldatu zara Zumarragan?

Zoriontsua izan naiz. Kristau elkarte handia eta ederra dago hemen: katekesian, Caritasen, misio arloan... Jesukristorengan sinismen sendoa duen jendea dago. Hori niretzat oso lagungarria izan da. Gainera, Esteban izan dut ondo-

an. Niretzat altxor izugarria izan da. Goizetik gauera hemen nuen lan egiten, *gratis et amore*.

Toki gutxietan izango dute halako zortea...

Inon ere ez, nik uste. Egon naizen toki guztietan lagunak izan ditut, baina hau bezalakorik ez dut ezagutu. Bere laguntasuna ez dut soilik parrokia mailan izan, baita aisialdian ere. Gorabehera bat izaten genuen bakoitzean, baxoerdi batzuk hartzera joaten ginen, barruak husten genituen eta animatu egiten ginen. Anaia bat baino gehiago izan da niretzat. Hil zenean lur jota eman nituen hamar egun. Orain indarra berreskuratzen ari naiz, baina Estebanek hutsune handia utzi du hemen. Ez bakarrik parrokian: txistularien artean, pilota munduan... Hutsune handia nabaritzen dut. Eskerrak erretiroa eman didaten. Bera gabe, ez nintzen jarraitzeko gai izango.

Zein da Zumarragan bizi izandako unerik gozoena?

Horrenbeste momentu on eta hunkigarri bizi izan ditut... Jende on eta aberats asko ezagutu dut. Jesukristorekiko fede sendoa duen jende horrek bizipoza eman dit. Une zehatzei dagokienez, hasierako otoi-tzaldiak, gazteekin, elbarrituekin eta haurrekin bizitakoak... gogoratzen ditut. Dena izan da aberasgarria.

Zer izan da gogorrena?

Jendeari ezetz esan beharra. Aita hil zaion bati elizan berak nahi duen abeslariak ezin duela abestu esatea oso gogorra da.

Zer moduz parroko berriarekin?

Oso ondo. Laguntzeko prest nagoela esan diot. Oso jatorra iruditzen zait. Goran dagoen kubatarrarekin ere oso gustura aurkitu naiz. Oso azkarra eta jatorra iruditu zait. Aurrerantzean ere harremana ona izango dela uste dut.

Zer egin behar duzu aurrerantzean?

Parrokian jarraitzeko asmoa dut, hemen ondo aurkitzen bainaiz. Hori bai, beste era batean: lasaiago. Behar baldin banaute, laguntzeko prest nago. Bestalde, familiarekin eta lagunekin gozatzeko, irakurtzeko, musika entzuteko... asmoa dut. Horrelakoa izango da nire bizitza.

Zer ari zaizu esaten kaleko jendea?

Omenaldia Estebanen kontua izan zen eta ni ez nengoen alde. Konbentzitu egin ninduen, baina bera hil zenean omenaldia bertan behera uztea erabaki nuen. Handik egun batzuetara berriro animatu ninduten. Nire txepeltasuna ikusita, edonork ni baino gehiago merezi du. Denei eskerrak eman beharrean nago.

Zerbait gehiago esan nahi al diezu zumarragarrei?

Nik espero baino hobeto eta babestuago egon naiz. Kezkatuta etorri nintzen, neure burua urretxuartzat bainuen: Zumarragan jaio nintzen, baina lau hilabeterekin Urretxura eraman ninduten eta koadrila han nuen. Lehen Euskal Jaian Iparragirreren rola bete nuen eta lehen saria lortu genuen. Horrek oso urretxuar sentitzera eraman ninduen eta Zumarragara kezka apur batekin etorri nintzen, baina oso ondo hartu ninduten. Eskerrak eman nahi dizkiet denei, denei, denei...

Bukatzeko, apaiz ezkertiar eta abertzalea zara, hori dirudi behintzat, nola ikusten duzu elizak hartu duen bidea?

Lehengoan antzerako galdera egin zidaten. Ni ez naiz igarlea edo profeta eta ez dakit hau guztia onerako edo txarrerako izango den. Hori bai, ikusten dudan eliza ez da nik bizi izan dudana. Zestoan gotzainarekin elkartzen ginela eta elizaren etorkizunari buruz hitz egiten genuela gogoratzen dut. Elizak gertutasuna landu eta euskararen alde lan egin behar zuela esaten genuen. Eliza hori niretzat atsegingarria zen, Kontzilioaren ondorengo izpiritualtasuna zuen eta horrek babestu eta eraman nau. Gaurkoa? Ez dut ikuspegi hori duenik, baina ez dakit aldaketa onerako edo txarrerako izango den. Bestalde, Sao Paulon lehengusina dut (Iturbeneko Maria Rosario Aranzadi) eta bertara joateko zortea izan nuen. Hango eliza ezagutu nuen: oinarriko komunitateak, askapenaren teologia... Hark indartu eta liluratu egin ninduen.

Nola ikusten duzu, beraz, elizaren etorkizuna?

Europa guztian egoera antzekoa da. Andoni Egaña bertsolariak behin esan zigun garai batean oso indartsu ikusten gintuela eta bertso garratzak botatzen zizkigula. Orain, berriz, lurpean ikusten gaituela eta gu altxatzen saiatzen dela. Beharbada lehenago izan dugun boterearen ordaina da, Jesukristok berpiztu aurretik gurutzaldia pasatu zuen bezala.

Batzuetan eliza jendearengana hurbiltzen saiatu beharrean urruntzen saiatzen dela dirudi.

Beste batzuek alderantzizkoa dela esango dute: Madrilgoa sintoma ona izan dela eta gaztedia kristau arazteko egokia. Nik ikuspegi bat dut, baina baliteke oker egotea. Dena den, eliza eskuinera doala eta inboluzioa dagoela dirudi. Ez naiz gehiago esaten ausartzen.

Julian Irizar: Bizitza osoa zorioneko diruarekin lanean

Krisia jende arruntarengan izaten ari den eraginari buruz hitz egiteko nor hobe egunero herritarren diruarekin harremana duena baino. Julian Irizar zumarragarra 14 urterekin hasi zen lanean Banco Guipuzcoanon eta aurten aurre erretiratu da. Krisiaz gain, jendearen ohituren eta banketxeen bulegoetako lanen bilakaeraz aritu da.



Julian Irizar Urretxuko Barrenkalen.

Non jaio zinen?

Zumarragako Zelaikoa etxean jaio nintzen, Pacorro tabernaren etxe berean. Ama Bergarakoa zen eta aita Azkoitikoa. Umetan etorri ziren Zumarragara. Aita okina zen. Bi seme izan zituzten. Anaia Zumarragan bizi da eta Banco Guipuzcoanoren bulegoko zuzendaria izan da duela urte gutxi arte.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oso oroitzapen onak ditut. Garai hartako gainontzeko haurrek bezala egun osoa kalean ematen genuen: errekan jolasten, pilotalekuan, Zelai Ariztin... Herria oso ezberdina zen. Dena kalean egiten genuen. Pilota eta futbola besterik ez genituen. Ibaiaren ondoan bizi ginenez, bertan denbora asko ematen genuen.

Non egin zenituen ikasketak?

La Sallen ikasi nuen 14 urte bete nituen arte. Ondoren Banco Guipuzcoanon hasi nintzen lanean. Anaiak bertan lan egiten

zuen eta mandatu-mutil hastea proposatu zidaten. Garai hartan ia guztiok 14 urterekin hasten ginen lanean.

Zein zen mandatu-mutilaren betebeharra?

Gauza asko egin behar nituen, tartean enkarguak. Garai hartan banketxeek etxez etxe ibiltzen ziren kobratzaileak zituzten eta niri letra horiek sailkatzea tokatzen zitzaidan. Orduan lana oso mekanikoa zen eta egun, berriz, komertzial lana nagusi da.

Lan bizitza osoa banketxe eta aurrezki kutxetan eman duzu.

Hala da. Guipuzcoanorentzat lau tokitan lan egin nuen: Zumarragan, Bergaran, Beasainen, Azpeitian eta Zaragozan. Izan ere, soldadutza Zaragozan egin nuen. Soldadutzatik itzuli nintzenean Lankide Aurrezki Kutxara joan nintzen. Zumarragako bulegoa Piedad kalean zegoen garai hartan, Itzalon zinemaren ondoan. Ondoren Urretxura joan ginen eta 1982an Legazpi kalekoa ireki genuen. Zuzendari bezala joan nintzen. Ondoren Secundino Esnaola kaleko bulegoa ireki genuen eta azkenik Arrasatera joan nintzen beste lan mota bat egitera: maileguen sinatzeen arduraduna nintzen.

Zergatik erabaki zenuen Guipuzcoanotik joatea?

Lankide Aurrezki Kutxakoen eskaintza gustatu zitzaidan eta gainera aurrezki kutxetan ez dago banketxeetan bezain beste hierarkia. Denok bazkideak gara eta oso gustura egon naiz. 35 urte eman ditut bertan.

Bertan hasi zinenean enpresa gaztea izango zen.

Hala da. Lankide Aurrezki Kutxak 1967an ireki zuen Zumarragako bulegoa. Kutxak, berriz, mende hasieratik zeraman hemen lanean.

Zuen lana asko aldatu da.

Ni hasi nintzenean dena lumaz egiten zen. Zientzia fikzioa dirudi. Ondoren boligrafoa, batuketak egiteko makina... heldu ziren. Leihatilan pertsona bakarra egoten zen eta gainontzekook makinari ematen genion. Lehen ordenagailuak 1980an jarri zizkiguten.

Bezeroekin harremana ere asko aldatu al da?

Lehen zuzendariak eta leihatilan zegoenak bakarrik zuten harremana bezeroekin. Bergarako bulegoan 27 lagun ginen eta ia guztiok makinetan lan egiten genuen. Zumarragan 11 ginen, Beasainen 24... Bulegoak oso handiak ziren, dena eskuz egiten baitzen. Egun, berriz, guztien zeregin nagusia saltzea da. Lehen oso gutxi eskatzen zitzaigun eta orain exijentzia maila sekulakoa da. Langile guztiek helburu zehatz batzuk bete behar dituzte eta itota bizi dira. Lehen bezeroak bizitza guztirako ziren eta egun baldintza onenak eskaintzen dizkietenengana joaten dira. Horrek guztiak gure lana asko zaildu du. Zorionez, erretiratu egin naiz. Azken urteetan buruhausteak etengabeak ziren: norbaitek mailegua ordaintzeari utzi ziola, enpresa batek ordainketak eten zituela...

"Garai batean Banco de Vizcaya, Banco Guipuzcoano eta bi kutxak bakarrik zeuden Zumarragan"

Gainera, lehia lehen baino askoz ere handiagoa da.

Garai batean Banco de Vizcaya, Banco Guipuzcoano eta bi kutxak bakarrik zeuden Zumarragan. Ez zegoen bezero bila joan beharrik. Egun, berriz, 10-12 konpainia ezberdinek dituzte bulegoak Zumarragan.

Egun bankuak eta aurrezki kutxak ez dira dirua gordetzera eta maileguak ematera mugatzen.

Lehen kontu korronteak, ageriko aurrezki-libretak eta epe finkorako aurrezki-gordailuak besterik ez zeuden. Mailegu oso gutxi ematen ziren. Oso mugatuak zeuden. Lankide Aurrezki Kutxan 1983a arte ez genuen hipotekarik eman. Hipotekak Kutxak bakarrik ematen zituen. Seguruekin-eta ere gero hasi ginen. Enpresekin, berriz, asko lan egiten genuen.

Maileguen izaera asko aldatu al da?

Bai. Garai hartan premiazko gauzetarako soilik eskatzen zen. Auto oso gutxi zeuden eta gehienok alokairuan bizi ginen. Egungoaren guztiz kontrakoa zen. Niri Brasilera oporretara joateko mailegu eske etorri zitzaizkidan. Toki xumeago batera joatea aholkatu nion eta Brasil gustuko duela esan zidan. Beste batzuk lanean hasi eta bigarren hilabetean Audi autoa erosteko 24.000 euroko maileguaren eske etortzen ziren. Bigarren eskuko auto xumea erostea aholkatu eta Audi autoak eta abiadura gustuko zituztela erantzuten zizuten. Zer esango zenien ba? Gero ordaintzen bazuten...

Lehen bulegoetan lagun askok lan egiten zenutela esan duzu. Egun, berriz, oso gutxik.

Lehia handia dagoenez eta lana ordenagailuen laguntzaz egiten denez jendea soberan dago. Bezeroak lortzeko bakarrik behar da jendea. Gauza batzuetan hobera egin dugu eta beste batzuetan ez horrenbeste.

Bestalde, bankuek eta aurrezki kutxek sekula baino irudi okerragoa dute.

Zorionez jendeak badaki banketxetako eta aurrezki kutxetako langileek ez dutela ezeren ardura. Banka eta politikariak oso gaizki ikusita daude. Banku handiek batez ere sekulako irabaziak dituzte eta jende asko kexati ageri da. Lehen ez zen halakorik gertatzen. Jendea ezjakinagoa zen.

Diruarekin lan egiten duzue. Nola ikusten da egoera ekonomikoa banketxe edo aurrezki kutxa baten bulegotik?

Egoera txarra da. Langabezia handia dago eta enpresak larri dabiltza. Lehengoan Gipuzkoako enpresen %60ak aurten galerak izango dituela irakurri nuen egunkarian. Hori dela eta, geroz eta zailagoa dute maileguak lortzea. Gurpil zoroa da. Batzuek krisiak bi urte iraungo duela diote, besteek bost urte iraungo duela... Baina hemen beti bezala bizi garela uste dut. Dena den, ni Beasainen bizi naiz eta han gaueko giroa izugarri jaitsi dela esan beharra dut. Eta Eroski Bidaiak agentziak Beasainen duen bulegoko arduradunak, berriz, aurten jende gehiena penintsulan gelditu dela esan dit. Denetarako ez da iristen, baina batzuek aurreztea gustuko dute eta beste batzuek berriz duten guztia gastatzen dute. Madrildik behera askoz ere gutxiagorekin bizitzen ohituta daude, baina duela lau urte arte sekulako maileguak ematen ziren hemen. Kanpotik etorritako notarioak sustatu egiten ziren. Hemen sekulako negozioa zuten, baina asko jaitsi da.

Bankuek ez al zuten erruaren zati bat? Duela urte batzuk errazegi ematen zituzten maileguak eta egun zailtasun gehiegi jartzen dituzte.

Hala da. Egun ere maileguak ematen dira, baina konfiantzazko jendeari bakarrik.

Nola daiteke inor gainera zetorkigunaz ez jabetzea?

Egia esan, zer edo zer gertatuko zela argi zegoen. Izan ere, etxebizitzak euren benetako balioaren oso gainetik tasatzen ari ziren. Egun etxebizitza horiek %60 balio dute eta banku askok arazoak izan ditzakete.

"Madrildik behera askoz ere gutxiagorekin bizi dira: hemen duela lau urte arte sekulako maileguak ematen ziren"

Herri ezberdinetan lan egin duzu. Batetik bestera alderik nabaritu al duzu?

Bai. Sinesgaitza da horren toki txikian zein ezberdinak garen. Zumarragan eta Beasainen erdaldun asko daude eta Oñatin edo Azpeitian, berriz, ia denak euskaldunak dira. Euskaldunoi ez zaigu gustatzen banketxe batetik bestera ibiltzea gure diruarengatik zenbat emango diguten galdezka. Baserritar asko dirua sartu eta urtetan ez dira bere bila itzultzen. Bestalde, herrietan denok elkar ezagutzen dugu. Bezero guztiak ezagutzen nituen eta sartu bezain pronto banekien zertara zetozen. Hirietan trajedun bat bulegoan sar-tzen bazaie ez dute jakiterik diputatua den edo ziria sartzera joan zaien.

Bestalde, Arrasaten lan egin duzu: Lankide Aurrezki Kutxaren etxean.

Hura beste mundu bat da. Herri gehienetan Kutxak bezeroen %50a du, baina Arrasaten herritarren %80 kooperatibista da eta Caja Laboralen bezeroa da. Lau bulego eta zentrala ditu bertan.

Zein da zure lanaren alderik onena?

Jendearekin harremana. Lagun asko egin ditut eta laguntzeko aukera izan dut.

Eta okerrena?

Norbaitek ordaintzeari uztea, adibidez. Zorionez nik ez dut lapurretarik jasan, baina mailegua jaso ez duten jendearen mehatxuak jasatea suertatu zait.

Otsailean erretiratu zinen. Zer egiten duzu ordutik?

Bidaiatzea eta kirola egitea. Ilintxa taldeko atezaina izan nintzen, Goierri saskibaloi taldean ere jokatu nuen... Goierri soldadutzara joan nintzenean utzi nuen eta azken urteotan squashean eta tenisean jokatu dut batez ere. Egunero egiten dut kirola. Ikusteko ere atsegin dut kirola.

Bidaiatzea gustuko duzula esan duzu.

22 urterekin autoa erosi nuen eta ordutik ez diot bidaiatzeari utzi. 30 bat herrialdetan izan naiz: Brasil, Argentina, Chile, Mexiko, Kanada, Txina, Jordania, Israel, Egipto, Tunez, Europako 20 bat herrialde... Gehien gustatu zaizkidan tokiak Argentina eta Brasil dira. Erretiratu egin naizenez, urtean bidaia pare bat egiteko asmoa dut.

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

KUkutza putza!

Horixe pentsatuko zuen Iñaki Azkunak, Gernikako arbola baino euskaldunagoa sentitu baina Madrilgo gurbitza (madroñoa) bezain espainola den Bilboko alkate ahoberoak, duela aste gutxi Errekaldeko Kukutza gaztetxea hustu eta botatzeko agindua eman zuenean. Rodolfo Ares komandanteari telefono dei bat egin eta listo, aspaldion kate motzean lotuta egondako zientoka Ertzainek barruan gorderik zuten amorrua hiri osora zabaldu zuten, Bilbotarrek —eta han zeuden gure zenbait lankidek— sekula ahaztuko ez duten polizia operazio "proportzional eta profesional" batean. Egurra partitzea zer den jakin nahi duenak ikus ditzala egun haietako bideoak. Kontua da esperientzia horretatik gure herrira estrapolatu daitezkeen hiru ondorio atera daitezkeela. Bat, jabego pribatuaren defentsan aritzearen aitzakiapean, gazteria eta oro har gizarte eredu konkretu baten alde —eta besteen kontra— egiten dutela boterearen (zementuzko) hariak maneiatzen dituztenek. Bi, gezurra dirudien arren, inguruan beti dagoela zure herriko alkatea baino barrabasagoa den besteren bat. Eta hiru: hogeita hamar urteak aspalditxo gainditu dituzun horrek, gaztetxe batera sartu eta barraren ertzean zaudela sekreta edo estupa konplejoa sartzen bazaizu, Azkunaren argazki bat atera ezazu, paretan itsatsi eta zapata bat botaiozu, en plan taliban, parrokianoek ikus dezaten ez zarela pertsona arriskutsua. Estrategiak funtzionatzen ez badu, lasai, Azkunak eta Aresek dioten moduan, barruan dauden guztiak sustantzia loeragileen menpe bizi dira, eta egoerak okerrera eginez gero, nekez harrapatuko zaituzte korrika ihes eginez gero... Bi fenomeno horiei ahaztu egin zaie esatea hain justu kontrakoagatik esistitzen direla gaztetxeak: gazte ipurterreek esna jarraitu nahi dutelako.

Ardo dastaketak modan daude.
Ardoa gustatzen al zaizu?

Maria Angeles Catalina

Ardoa gustuko dut, baina ez dut asko edaten: jatorduetan batez ere, baina poteatzea ere gustuko dut. Beltz ondua gustatzen zait batez ere. Duerokoa bereziki. Gainera, bertan senitartekoak ditut. Ez dut herrian antolatzen diren dastaketetara joateko ohiturarik, batez ere denborarik ez dudalako.

Tomas Lekuona

Ardoa jatorduetan bakarrik gustatzen zait. Txikiteoan ez naiz ibiltzen. Ardoa, zenbat eta hobea hobe. Beltz ondua gustatzen zait gehien, baina egunerorako urtekoa edaten dugu. Errioxakoa eta Nafarroakoa edaten ditugu. Santa Lutzitan ardo azokara joateko ohitura dut. Artuke eta Emiliano upeltegietakoak ezagunak ditut.

Francisco Plaza



Bazkalorduan bakarrik edaten dut ardoa. Ez dut poteatzeko ohiturarik. Ardo beltza gustatzen zait eta Errioxatik ekartzen didate. Ez dut Santa Lutzitako ardo azokara joateko ohiturarik eta aste honetako Zumarragako dastaketara joateko asmorik ere ez dut.

Satur Diaz

Jatorduetan bakarrik edaten dut ardoa. Beltza gustatzen zait eta Coca Cola edo gaseosa botatzen diot. Santa Lutzitako azokara ez naiz joaten eta aste honetako Zumarragako dastaketara ere ez naiz joango.

bota bertsoa!

Irun, 2011-10-9. Gipuzkoako bertsolari txapelketa.

Gaia: Kalera irten eta paseoan zoazela, nahi ez zenuen leku batera iritsi zara

Doinua: Loa, loa, ttuntturrun berde

Asier Sasieta

Kalera paseora irten naiz
zegon giro mundiala,
portal batetik irteten horra
bere aurpegi zitala,
urtebete bat ia pasa da
biok banandu ginala,
tamalez neri ahaztu egin zait
hemen bertan bizi zala.

Nere senar ohia sarri nuen
nik erasoka hasia,
bakarrik sentitzen nintzen ahul
barruan a ze antsia,
bizkartzain bat, bai, jarri didate
neretzako berezia,
nik bizkartzainik ez det eskatu
soilik nahi det justizia.

Bere aurpegia ikusteak
ni ez nau ipini alai,
ni jo ninduen ta orain berdin
jipoitu dezake nornahi,
bera berriro noiz ikusiko
beldurrez hemen nago, ai,
barrote artean ikusi arte
ezingo naiz bizi lasai.

iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua

Fida zaitez etxekoez!

Egunkari batean irakurri dut Robert Young eta Mark Rubisonek bere lagun Jeffrey Jarret hilda topatu zutela etxera iritsitakoan. Jeffrey kotxean sartu zuten eta afaltzera joan ziren Mexikar jatetxe batera. Jeffreyk ez omen zuen afaldu, goserik ez gizonak, baina kontua bere txartelarekin ordaindu zuten. Fina gure Jeffrey. Gero trago batzuk jotzera joan ziren. Azkenik, etxera bueltatu ziren. Jeffrey bere gelara eraman eta ohean sartu zuten. Gure Jeffrey deskantsu ederrean utzi eta Robert eta Markek parranda jarraitzea erabaki zuten. Eta horretarako Jeffreyren txartela hartu zuten berriz ere. Antza, ez omen zuten saiakera handirik egin behar izan txartela lortzeko. Strip-teaseko lokal batera joan eta han 400 dolar xahutu omen zituzten "Gora Jeffrey!" oihuen artean. Lagunak merezi zuen hainbeste!. Poliziak biak salatu ditu "nortasun aldaketa" eta "hilotzaren erabiltze okerra" delituekin. Inoiz ez dute horrelako kasurik ikusi. Badakizue, munduan bili ez denari, edozer gauzak sortzen dio harridura. Robert eta Markek diotenez, ez zitzaien iruditu Jeffrey hilda zegoenik. "Itxura txarra hartu genion, baina nahiko tipo alproja denez...". Mediku txostenak dioenez, ordea, Jeffrey hilda zegoen lagunek etxean topatu zutenean. Ederki gaude polizi eta medikuen artean. Laguna parrandara eraman zuten eta begira zer estimazio exkaxa eduki duen asmoak. Bueno, Mark eta Robert, ondorio baikor bat atera dezakezue: kartzelatik ateratzen zaretenean leku gehiago edukiko duzue etxean.

Halcón bidaiak.com

LORTU EZAZU NEGU HONETAKO PREZIORIK ONENA 30 EGUNEKO AURRERAPENAREKIN ERRESERBATUZ (ASTE SANTUA BARNE).

2011 URRETXU / Urriaren 29tik azaroaren 6ra

Urrelur museoa

FERIA
azaroak
4 - 5 - 6

SALEROSKETA
ETA TRUKAKETA
MUSEOKO
BISITALDI GIDATUAK,
HAURRENTZAKO
PARKEA, TIROLINA,
ROKODROMOA,
MONOGRAFIKOAK,
HARRI BITXIEN
LANKETA

Ordutegia
10:00 - 14:00
17:00 - 21:00

URRELUR
XXIV.
MINERALOGIA
ETA
PALEONTOLOGIA
ASTEA

www.urretxu.net



▼

London.

Javi Alonso

PUBLIC
UNDERGROUND
SUBWAY

CONFORT auto

ZUAUTO

Mantenu-mekanika berme ofiziala galdu gabe
Klimatizazio sistemak
Osagaien instalazioa
Gurpilen muntaia
Gasolina injekzioa
Turbo-konpresoreak

Motorraren mekanika
Aire egokitua
ABS eta ESP galgak
Diesel injekzioa
Car-multimedia
Esekidurak
Elektrizitatea

EUSKAL HERRIA HIRIBIDEA - ZUMARRAGA - 943 725 448

Urtero BEC ordenagailuz betetzen duen urretxuarra

Sabino San Vicente urretxuarrak duela jada ia 20 urte informatika zaletuen topaketa antolatu zuen Urretxun. Ekitaldi hau hazten joan da eta egun Estatuan antolatzen den handiena da. Euskal Encounter du izena eta milaka lagun elkartzen ditu BECen. San Vicente da oraindik antolatzaile nagusia eta ekitaldia Mexikora ere esportatu dute.



Sabino San Vicente bere ordenadorearekin *Otamotz* aldizkariaren erredakzioan.

Nolatan halako informatika zaletasuna? Norbaiten eraginez?

Betidanik izan dut gustuko informatika. Nire gurasoek espero ez nuen Spectrum 48K bat oparitu zidaten Gabonetan eta horrekin hasi nintzen programatzen 13-14 urterekin. Orduan honi buruzko liburu eta aldizkari asko irakurtzen nituen, baina softwarea lortzea oso zaila zen. Gero lehengusu baten bidez (Carlos), IMI programaren barruan sartu nintzen. 16 urte bete gabe nituen eta han beste zenbait ordenagailu ezberdinekin esperimentatzeko aukera izan genuen. Abantailarik handiena han dokumentazio pila eta programatzen ikasteko liburu eta tutorial asko zirela izan zen. Hortik aurrera zaletasun bera zuen jendearekin harremanetan jartzen hasi nintzen, hasieran gertuko herrietan, gero aldamenekoetan eta azkenik atzerrikoekin eta ezagutzan sakon-tzen jarraitu nuen. Internetik ez zegoen eta informazio-grina hori esperimentatzen

edo beste batzuekin ezagutza konpartitzen asetzen zen.

Nola gogoratzen dituzu hastapenak? Oso jende gutxik izango zuen orduan ordenagailua...

Garai hartan ordenagailuak enpresa handien gauza ziren ia esklusiboki. Prezioak oso altuak ziren. Eskoletan ez zeuden eta unibertsitateko ordenagailu-gela gauza berritzaile eta ezohikoa zen. Prozesagailuen abiadura Mhz-tan neurtzen zen eta ez Ghztan gaur egun bezala. Orduan hasi ziren lehen disko gogorrak 50 Megabyte ingururekin, zerikusirik ez gaurko Gigabyte edo Terabyte-ko kapazitatea dutenekin. Gauzak horrela etxean ordenagailua izatea oso arrarotzat hartzen zen eta jendeak orokorrean ez zuen ulertzen zertarako balio zezakeen. Bestalde, ordenagailu haiek oso primitiboak ziren: softwarea casette-zinta baten bidez kargatu behar zen eta, sarritan kopia piratak erabiltzen zirenez, programek ordu erdi edo gehiago behar zuten kargatzen. Gaur egun, ordea, klik bikoitz baten bidez segundotan kargatzen ditugu. Etxeko erabiltzaileentzat ez ziren datusareak existitzen eta pixkanaka BBSak agertuz joan ziren informazioa partekatzeko, gaur egungo posta-elektronikoaren antzeko zerbait ziren baina informazioak gutxienez 24 ordu behar zituen zure ordenagailura iristen. Konexio bakoitzeko ordaintzen zen eta abiadura 2.400 baudiokoa zen, 0,001 Mb/s, gaur egun Euskaltelek eskaintzen duen 50 Mb/s-ko abiadura baino 50.000 aldiz txikiagoa. Hala eta guztiz ere, ez ginen gutxi mundu horretaz gozatzen genuenak eta gauzak egiteko eta elkarrekin komunikatzeko modu berri batean barneratzen ari ginen, nahiz eta ez ginen konturatzen nolako bilakaera ikaragarria izango zuen ondorengo urteetan eta zer aldaketa itzel ekarriko zituen horrek.

Nondik nora ibili zara lanean?

Hasieran informatikako klaseak ematen hasi nintzen akademia batean. Herri batetik bestera joaten ginen eta gela hura egunero muntatu eta bildu egin behar genuen. Gero informatikako enpresa txiki bat sortu genuen Donostian, Kernel izenekoa. Gure helburua ikus-entzunezko soft-

"Nire gurasoek Spectrum 48K ordenagailu bat oparitu zidaten eta horrekin hasi nintzen programatzen"

ware bat sortzea zen, baina eguneroko fakturak ordaintzeko ordenagailuak ere saltzen genituen. Horren ondoren irakaslea izatera pasatu nintzen Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan. Han lau edo bost urte pasatu eta gero Canal21 sortu berria zen interneteko atarian hasi nintzen lanean. Madrilen zuen egoitza, baina Zamudion bulegoak zituen, Euskaltelen proiektu bat baitzen. Ez zuen gehiegi iraun eta bi urte eta gero Euskaltelen barne geratu ginen Canal21eko langileok. Negozioen Garapenerako departamentuan egin nuen lan hasiera batean eta, marketineko departamentuan jada, Web berriko proiektu buru izendatu ninduten. Lan hauetan nengoelarik Euskal Encounterreko proiektua beti izan nuen buruan eta askotan hobby bezala eta besteetan erdi lan bat bezala honen antolakuntza eta garapenean buru-belarri nengoen. Orain dela bi urte lortu genuen proiektu honen nazioarteratzea. Ondoren Marketineko ataletik Euskaltel Fundaziora pasatu nintzen proiektu hau eta teknologi berriekin zerikusia duten beste batzuk kudeatzeko.

Nolatan sortu zenuten Euskal Encounter?

Ekitaldi hauen sorlekua Europa iparraldean ezar daiteke. 80. hamarkadaren erdiaz geroztik ospatzen dituzte. 1994an ekin genion Euskal Partya antolatzeari, Urretxun. Orduan askoz ere bilgune txikiagoa zen, 36 pertsona elkartu baikinen. Baina berehala hasi zen gorako joera azkarra. Behin baino gehiagotan ekitaldia lekuz aldatu behar izan genuen eta, azkenean, 2004an BECera egin genuen salto. Egun 6.000 parte hartzaile baino gehiago biltzen ditu espainiar Estatuko party handiena bilakatu den informatikaren festa honek. Hasieran, helburua Amiga ordenagailuaren inguruan zebilen jendea elkartzea besterik ez zen, baina apurka apurka beste zenbait plataforma barneratu genituen eta horrekin batera hainbat gai berri jorratzeari ekin genion. Lehenengo partyak gauzatzeko jende askok hartu zuen parte, Urretxuko jendeak: Ignacio Aranburu, Mikel Aramendi, Oier Agirre, Iker San Vicente, Artizar taldeko zenbait jende eta orain gogoratzen ez ditudan beste zenbaitek ere. Tolosako jendeak ere parte hartu zuen, herri honetan ordenagailuen inguruan lan egiten zuen beste talde txiki bat baitzegoen. Madriletik ere jendea etorri zen. Lehen partya Ederrena frontoian ospatu zen, 25 ordenagailu eta

36 pertsonekin, eta azkena Bilbao Exhibiton Centren, 4.096 ordenagailu, 6.000 pertsona eta 18.000 bisitarirekin.

Nola gogoratzen dituzu lehen ekitaldi haiek?

Euskal-a beti gogoratzen dut alde batetik bestera joaten, gutxi jaten eta lo egin gabe edo lo gutxi eginda. Hasieran guk ondo pasatzeko ekitaldia antolatzen ari ginela uste genuen, baina gero konturatu ginen guk ezin genuela ondo pasatu eta besteen gozamenerako ekimen bat zela. Beti gogoratzen ditudan gauzak ondo atera ez direnak dira. Momentu latzak pasatu ditugu, baina zorionez azkenean konpongarriak izan dira eta horrek eman digu egun dugun esperientzia gauzak hobeto egiteko.

Zertan aldatu da topaketa hau?

Aldaketa nagusiak teknologiaren arloan gertatu dira. Hasieran ordenagailuek konexio eskasak zituzten eta egun ditugun makinek, aldiz, mila bider gainditzen dituzte hasierako horien konektibitate azkartasuna eta ahalmenak. Bestalde, guztiz eraldatu da parte-hartzaileen artean komunikatzeko modua ere. Euskal Encounter-a sortu genuenean ez zen Internet. Beraz, ekitaldiaren berri emateko, informazioa disketeetan biltzen genuen eta posta bidez bidaltzen genituen. Izugarri aldatu dena orain eskaintzen diren edukiak dira. Hasieran oso lehiaketa gutxi antolatzen genituen eta jendeak denbora asko ematen zuen jarduerarik gabe. Gaur egun ezinezkoa da arlo guztietan parte hartzea. Dena den, eta zorionez, inor ez dago behartuta lehiaketetan parte hartzera eta jende askok lau egunak besteekin hizketan pasatzen ditu.


BEC ordenadorez gainezka

Datorren urtean 20. ekitaldia izango da. Zer edo zer berezia egiteko asmoa al duzue?

Momentuz 19. edizioa bukatu besterik ez dugu egin, arrakasta handiz gainera. Bilbao Exhibition Centrek duen pabilioirik handiena 4.000 ordenagailu, 6.000 parte hartzaile eta 18.000 bisitarirekin beteaz. Orain arteko ediziorik ikusgarriena izan da eta bukatu ondoren, ohitura dugun bezala, Urretxun bildu gara izan diren gauza onei zein txarrei buruz eztabaidatzeko eta hurrengo urteko hobekuntzak adosteko. Beraz, bilera horretatik eta urtean zehar izango ditugunetatik aterako ditugu 20. ediziorako asmoak, oraindik ikustear daudenak.

Espero al zenuen informatikak halako garrantzia hartzea guztion egunerokoan?

Ez nik eta ezta inork ere. Hasieran, zenbait esparrutan neketsuagoa zen zerbait ordenagailuz egitea eskuz baino. Ondoren, nahiz eta honek horrela izaten jarraitu, ordenagailuen abantailak ikusten ziren: egindako lan batean zerbait aldatu behar zenean, ez zenuen zerotik hasi behar. Denbora pasatu eta gero lan bakoitzak programa egoki bat aurkitu du eta ezinezkoa litzateke gaur egun dugun produktibitatea ordenagailurik gabe. Hau aurreikustea ez zen oso zaila, baina niretzat ikaragarriena gaur egun komunikazio pertsonalean izan den iraultza da. Hasieran ordenagailuen garapenean jartzen ziren indar guztiak eta hauek behar adineko potentzia lortu zutenean zerbitzuetara jo zuten konpainia askok. Horrek ikaragarri zabaldu zuen ordenagailuen mundua. Hurrengo pausoa zerbitzu berriak eta dispositibo pertsonalak izango direlakoan nago.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nire ustez hurrengo iraultza gure patriketan izango ditugun dispositiboetan izango da. Gaur egun smartphone berriak oso indartsuak dira eta erabiltzeko erak gero eta errazagoak. Benetako iraultza zerbitzu berrietan etorriko da: behar dugun informazio guztia, gure identifikazioa, kokapena, diru elektronikoa eta abar gure esku tartean izango dugu. Honek zenbait abantaila ekarriko dizkigu, baina baliteke buru hausteren bat ekartzea ere bai. Honetaz gain gure informazio guztia, behintzat oso sentsiblea ez dena, Interneten izango dugu, edozein lekutan erabilgarria izateko eta elkar trukatzea errazteko. Seguru aski, eta hau zaila da jakitea nola gertatuko den, edukiak ordaintzera pasatuko gara: baliteke Spotify zerbitzuak egiten duen moduan izatea edo eta konektibitatea ordaintzerakoan. Nolabaiteko akordio bat egongo da sareen jabeen eta edukiak sortzen dituztenen artean. Garapen hau guztia gertutik jarraitu beharko dugu inor teknologia berri hauek ezagutu gabe geratu ez dadin, baina baita ere jakin beharko dugu noraino iritsi nahi dugun gure pribatutasuna ondo gorde ahal izateko.

Nola ikusten duzu Internet eta sare sozialen erabilera? Gazteek ordenagailu aurrean denbora gehiegi ematen dutela esaten da, zaharrek gutxiegi...

Zaharren kasuan nire ustez beraien aukera da, badago jende heldu asko gauzak beste era batean egiteko tresna berri bat aurkitu duena. Gure ardura informatikaren aukeren berri ematea da. Gazteen kasuan, aldiz, behar batean bihurtu da, ikasketak edo lana dela eta. Egia da informatika aisia dela ere eta zenbait programa horretarako sortu direla edo eta horretarako erabili daitezkeela. Zer den denbora asko eta zer denbora gutxi zehaztea zaila da. Arriskuei aurre egiteko tresna egokiena informazioa da, ondoren norberak aztertu dezan zertan dabilen. Sare sozialen arriskurik nagusiena bertan esan behar ez diren gauzetan dago.

Herri Aldizkaria
Otamotz
TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO
Mikel - 647 319 775 - beasain@iragarri.net

urrats
PODOLOGIA ZENTROA
☎ 943 72 52 23
Labeaga, 31 behea - URRETXU

entzun
AUDIFONOAK
entzumenaren osasun zentroa
Jon Legaristi
AUDIOPROTESISTA
☎ 943 72 65 91
Labeaga, 58 1. lokala
URRETXU
entzun@telefonica.net
www.entzunaudifonoak.com

izantek
INGENIARITZA ZERBITZUA
☎ 657 717 900 - 943 03 66 86
Labeaga 56-58, behea URRETXU

ODRIOZOLA
AUTOESKOLA
☎ 943 72 05 05
Gernikako Arbola plaza, 1 - URRETXU

Txilarra
produktu ekologikoak
Belaustegi plaza (Euskaltegi ondoan)
URRETXU

CARPINTERIA METALICA
Futsi
CRISTALERIA
Matxinporta, 45 (Azkoitira bidean)
URRETXU
Tlf: 943 72 39 25 - 943 72 22 84
Fax: 943 72 22 85

GOIKO KALE
Ogitartekoak eta razioak

NATURHOUSE
Kontsulta doan
Labeaga, 5 URRETXU

IRATI
kafetegia
Labeaga, 52 - URRETXU
✆ 943 72 40 25

El bolígrafo de gel verde

Eloy Moreno

"Etxe baten jabe naiz, lanpostu eta soldata onak dauzkat, BMW distiratsua, emakume xarmangarria eta seme maitagarria. Eta hala eta guztiz ere, ez naiz zoriontsua. Zergatik?" Galdera honen erantzuna duzu liburu hau. Protagonistak gure gizartean zoriontsu izateko behar omen den guztia dauka baina, arrazoi berezirik gabe, bere bizitza pikutara doala ikusten du, hondoa jo arte. Bi dira, nire ustez, liburu honen ekarpen erakargarriak. Batetik, egiten dugun bizimodu "urbanero" (urbano eta eroa) zalantzan jarri eta galdera sakonak planteatzea: nora noa eta nora goaz? Bestetik, esaldiz esaldi antzematen da istorioa kontatzeko (eta argitaratzeko) idazleak ipini duen gogoa. Indar handiko narrazioa irakurriko duzu, irakurtzeari utzi ezinik, berehala amaitu beharko duzuna.

Pello Biain

Innerspeaker (2010)

Tame impala

Tame Impala 2007. urtean sortutako talde australiarra da. Myspace bidez egin zen ezagun eta arrakasta cibernetiko horren uzta dira 2008an grabatu zuten lehenengo bost pistako lana, eta ondoren, izen berarekin, 2010ean osatu zuten *Innerspeaker* hau. Euren itxurarengatik (edo itxurakeriarengatik) beste-talde-horietako-bat-gehiago dela esan genezake diskoaren azala nahiz videoclipak, edota merchandising-a ikusita. Baina ez... beti entzun nahi izan duzun hori dira. Abestien erritmoa azalean itsatsita gelditzen zaizu berehala, azkarragoa batzuetan, hipnotikoagoa besteetan; melodikoa, erraza, freskoa... Koroetan Beatlesen oihartzuna entzuten dela dirudi. Guztii hori psikodelia notadun opari paperean bildua. Beste garai batekoak diruditen koloreak sortzen ditu Tame Impalak.

Ane Arrieta

Tournee

Mathieu Amalric

Mathieu Amalric-ek samurtasun eta doitasun handiz erakusten du bere pertsonaien etsipena, ospe txarreko new burlesque ikuskizun erabat marjinal batean murgilduta. Taldearen eguneroko esperientzia arruntari lehentasuna ematean oso aukera gutxi ematen dizkigu probokazioz beteriko ikuskari beraz gozatzeko. Baina horren ordainean *Tournee*-k Frantziako ikuspegi ezezagun bat ematen digu, industrialde, gasolindegi, erre-pideko hotel kaxkar eta tren klaustrofobikoez betetako limbo bat balitz bezala. Filmeko aktoresak beretako new burlesque-ko izarrak dira eta beraiek asmatutako ikuskizunak dira kamara aurrean erakusten dizkiguterak. Amalric-ek bildutako talde honek ez du gaur egungo edertasun parametroetan leku handirik, baina gorputz hauen duintasun eta distiran dalza pelikula honen indarra.

Butaka 21 zineklub taldea

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATG
HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

EZKURRA
GOZOTEGIA
URRETXU
Iparragirre, 3 - Tel. 943 72 02 03
Labea: Labeaga, 54 - Tel. 943 72 62 19

centro óptico
JavierArratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ **943 72 54 84**

Egumendi, S. L.
Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak
Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS
Ekarri zure argazkiak eta nahi duzun moduan aterako ditugu: koadroak, mihiseak, muralak...
Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ **943 72 02 55**
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN
Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA
KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA
Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

HERCE
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA
Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto
BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA ZABALA
Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 - **URRETXU**
☎ 943 72 25 13

TABERNA
Ibarreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX
KIROLAK
☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

iKER
SUKALDEAK
Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita
MERTZERIA
Sekundino Esnaola, 2 - Tel. 943 72 05 62

Javier Ugarte
HARATEGIA
943 72 43 32 (harategia) - 943 72 54 91 (etxea)
Iparragirre, 1 behea - Urretxu

OZTIX
TABERNA

the intrepid fox

BERGARA
SUKALDEAK AROZTEGIA
300 metro koadroko erakusketa berria.
Egongelak - logelak - gazteentzako logelak
sofak - armairuak - koltxoiak - osagarriak
Matxinporta, 10 - Urretxu
943 723 689 / 649 846 369
www.mueblesbergara.com

Sebas Landa: 8.600 kilometro motorrean museo bat ikusteko

Sebas Landa zumarragarrari motorrean ibiltzea eta museoak ikustea gustatzen zaiola argi dago: San Petersburgoko Hermitage museoari buruzko dokumental bat ikusi zuen, gustatu egin zitzaion eta bere motorrarekin hara joatea erabaki zuen. Aurtengo udan izan da bertan. 8.600 kilometro egin ditu: Frantzia, Belgika, Alemania, Polonia, Lituania, Letonia, Estonia, Errusia eta Eskandinaviako errepideetan ibili da.

Sebas Landa, bere motorrarekin.

Landa aspalditik da moto zalea. "Beti gustatu zaizkit motorrak eta Harkaitz Barreros laguna izan zen bat erostera animatu ninduena. Igandetan Gorlara, Aztiriara... joaten ginen: izerdi pixka bat bota, lokatzez leporaino jarri, hamaiketakoa egin eta etxera. Ondoren Harkaitz errepidera pasatu zen eta gidatzeko baimena atera-tzeko eta errepideko moto bat erosteko konbentzitu ninduen".

Zumarragarrak trail egiteko Suzuki V-Strom motorra du. "Pilotatzeko postura oso erosoa da eta maleta batzuk jarri nizkion. Tokiak eta jendea ezagutzea beti gustatu izan zait eta bidaiatzeko oso apro-

"Kamioilariak dira jakin min handiena azaltzen dutenak eta zein ibilbide hartu gomendatzen didate"

posa da". Erosi bezain pronto Marokora joan zen: Atlasen eta desertuan ibili zen.

Esan bezala, aurten Errusian izan da. "Telebista ikusten ari nintzela Hermitage museoa azaldu zen. Gustatu egin zitzaidan eta joatea erabaki nuen. Iazko ekainean hasi nintzen bidaia prestatzen, baina Errusian sartzeko bisatua lortzea oso zaila da. Ez nuen lortu eta azkenean Aljeriara joan nintzen. Handik Tunezera pasatu nintzen eta ondoren Italiara".

Abentura zalea izateaz gain, burugogorra ere bada: Hermitage museoa bisitatzeko gogoa ez zuen galdu eta abenduan berriro saiatu zen bisatua lortzen. "Kontaktu batzuk egin nituen, San Petersburgon egona zen neska batekin hitz egin nuen, honek euren gidarekin harremanetan jarri zidan... Paperak betetzen lagundu zidaten eta otsailean bisatua lortu nuen".

Landa bakarrik joan da Errusiara. "Hala joatea atsegin dut. Izan ere, bakarrik joanda ez dut nago inoren mende eta une oro nahi dudana egin dezaket. Motorrean ibiltzeko gogorik ez dudan egunean ez naiz ibiltzen. Egun batzuetan 1.000 kilometro egiten ditut eta beste batzuetan bat ere ez. Toki bat gustuko badut gelditu egiten naiz eta bestela alde egiten dut. Normalean goizetan motorrean ibiltzen naiz, eguerdian hotela bilatzen dut eta ondoren kalera irteten naiz. Tokiak eta jendea ezagutzea atsegin dut. Supermerkatuetara eta tabernetara joatea gustatzen zait bertako jendea nola bizi den jakiteko. Ingelesez ondo moldatzen naiz: bi pertsonek elkar ulertu nahi badute, elkar ulertzen dute. Hori bai, hiztegi aberatsagoa izatea gustatuko litzaidake: institutuan gehiago ikasi ez izanaz damu naiz".

Aurten herrialde eta pertsona asko ezagutu ditu. "Hasteko, Frantzia eta Alemania zeharkatu nituen. Alemanian hiru egun eman nituen, bertan bizi den lehengusinarekin. Ondoren, bi egun eman nituen Varsovian, Lituaniatik Letoniara pasatu nintzen, Rigan bi egun eman nituen, Estonian beste bat eta hurrengoan San Petersburgora heldu nintzen. Han bost egun eman nituen. Ondoren, Finlandia, Suedia eta Norvegiatik pasatu nintzen. Azken herrialde honetan herriko bi lagunekin elkartu nintzen: Leire Aiastuirekin eta Karmele Otaegirekin. Etxera Danimarka, Alemania, Belgika eta Frantziatik itzuli nintzen. Joatea eta itzulera ez nituen bide beretik egin. Bidaia 20 egunekoa izan zen. Helburu nagusia Hermitage ikustea zen, baina baita motoarekin turismoa egitea ere".

Zorionez San Petersburgoko museoa asko gustatu zitzaion. 4.000 kilometro motoan egin ondoren ezer gutxi iruditzea bakarrik behar zuen... "Toki ikusgarria da. Areto pila bat dituzte, baina hala ere ez dute dituzten artelan guztiak erakusteko adina tokirik. Euren bildumaren hogeiren bat bakarrik dute bistan eta pabilioi bat egokitzen ari dira artelan gehiago erakutsi ahal izateko. Bestelde, San Petersburgo Errusiako hiriburua izan zen tsarren garaian eta nabari da: palazio asko daude, kaleak oso zabalak dira... Hiri oparoa zela ikusten da. Kanpoaldea eta errepideak okerrago daude, baina egundoko hiria da".

Norvegiak txunditu egin du: "Natura bere edertasun guztiarekin ageri zaigu bertan". Eta Alemania asko gustatu zaio.

"Beharbada nire lehengusinak gidari lana egin duelako izango da. Bambergera eraman ninduen, Erdi Aroko hiri zoragarri batera. Han garagardotegiek euren garagardoa egiten dute, hemen sagardotegiek bezala. Eta primerako ukondoa jan dut, hemengo garagardo azoketakoa baino askoz ere hobea".

Bidaia zoragarria izan da, baina baita gogorra ere. Egun batzuetan 1.000 kilometro baino gehiago egin zituen moto gainean. "Bidaia luze batek errespetu apur bat ematen du, beti gerta baitaiteke zer edo zer, baina egun telefono mugikorrak eta aseguruak ditugu. Gainera, normalean jendea laguntzeko prest ageri da. Bakarrik noalako izango da beharbada. Matrikula ikusten dutenean nongoa naizen galdetzen didate eta baita nora noan ere. Harritu egiten dira. Kamioilariak dira jakin min handiena azaltzen dutenak. Izan ere, eurak ere gehienetan bakarrik joaten dira. Hitz egiteko aukera ematen didate eta zein ibilbide hartu gomendatzen didate".

Berak ez du uste arriskurik dagoenik, baina bere ingurukoek ez dute horren argi ikusten. "Harkaitzek, adibidez, azkar joateko moduko motoa du eta beste pen-tsaera bat. Zoraturik nagoela esaten dit. Etxekoei dagokienez, aitak amak baino hobeto ulertzen nau. Aitak asko ikasteko

Pedro tsarraren neguko jauregia.

aukera dudala esaten du, baina amak nahiago luke Kanariar Irletara joatea. Toki batera heltzen naizen bakoitzean Internet bidez mezu bat bidaltzen diet ondo nagoela jakin dezaten".

Etorkizunera begira Estatu Batuetako 66 ibilbidea egin nahi du, baina oso zaila izango dela dio. "Oso garestia da: hegazkinean joan behar da, ondoren motorra alokatu... 2012an ez dakit zer egingo dudan. Iaz lagunekin hotela batera joateko gogoz itzuli nintzen Aljeriatik, baina abendurako Errusiara bidaia prestatzen ari nintzen. Aurten, seguru aski, berbera gertatuko zait".

Bitartean, asteburuetan Urretxu eta Zumarragako lagun moto zaleekin elkartuko da astebururo inguruko errepideetan ibiltzeko. Bere Suzukiarekin joango da, nahiz eta BMW bat gustura hartuko lukeen. "Bidaia luzeetarako motorik egokiena BMW 1.200 delakoa da: segurua eta gogorra da. Ewan McGregor eta beste aktore bat Indiatik Pakistanera joan ziren halako batekin. Atzetik autoak izango zituzten, noski. Horrek lasaitasun handia ematen du. Izan ere, han matxuraren bat izan ezkero... Iaz, Aljerian, kontu handiz ibili nintzen. Aurten, Europatik irten ez naizenez, arriskua txikiagoa izan da".

Egoera korapilatsuena motorra itzalita zuela bizi behar izan zuen. "Hiru ordu kostatu zitzaidan Errusiara sartzea. Hiru kontrol pasatu nituen. Eskerrak beti ingelesez zekien poliziaren bat azaltzen zen, bestela oraindik han izango nintzen... Errusiarrez idatzita zeuden agiriak bete behar izan nituen, nire paperak gazteleraz zeuden... Jendea kaletik paseatzen ikusi nuen arte ez nintzen lasaitu", amaitu du.

avenida Pub Taberna
TABERNA denak

Alex Areizaga

Informatika

Jolicloud

Hilabete honetako gomendioa sareko G de Guaxinton erabiltzailearena da. Osaba nonbait galdu al zaidan galdetzen ari nintzen honetan, (SOS Osaba!) erabiltzaile eskuzabal honek gaia proposatu dit eta azaltzen saiatuko naiz (gaizki egiten badut errua berea da, aukera eman bainion berak idatz zezan, jeje). Jolicloud ordenagailu txiki-berri hauetarako (netbook in inglix) sistema operatibo baten (Joli OS) webgunea da. Linuxen oinarrituta dago eta egun 1.2 bertsioan eskura daiteke (http://www.jolicloud.com). Sistema hau ordenagailu zaharrentzat ere egokia da, ez baitu makina indartsurik behar funtzionatzeko. Beste sistema batekin ere partekatu dezakezu ordenagailu berean. Oraindik ere ez dago euskarazko bertsioan. Linux munduan sartzeko aukera polita izan daiteke askorentzat.

Oihane Sudupe

Osasuna

Udazkeneko bitaminak

Udazkenean energia eta bitaminetan aberatsak diren fruituak heltzen dira. Elikagai hauek egun hotzak jasan ahal izateko indartzen dute gure osasuna. Kuia edo kalabaza adibidez, udazkenak eskaintzen digun altxorra da. Urteko egun ilunetan, gure mahaietara eguzki kolorea ekartzen du elikagai honek. Ahalmen antioxidatzailea duen betakaroteno iturri garrantzitsua da. Zuntz eta potasioan ere aberatsa izanik. Datil fruituek ere aipamen berezia merezi dute burdin, magnesio, B3 bitamina eta azido folikoan duten aberastasunagatik. Almendra edo amandak ere kaltzio (250mg/100g) eta E bitaminan (25mg/100g) aberatsak diren fruitu lehorrak dira. Oskolarekin gordetzea gomendatzen da hain osasuntsuak diren gantz azido insaturatuak ez baitira kaltetzen. Eguneko hamar ale hartuz lor ditzakegu onurak.

1995

Zumarragako jaietako giza-katea

Zumarragako jaietan Zintzo-Mintzo elkarteak antolatzen zuen giza-katearen ondoren ateratako argazkia. Musikariak, ezkerretik eskuinera: Mikel Muñoz, *Buli* Dominguez eta Ibon Garmendia.

Jabier Ugarte

Jabier Ugarte harakina Brinkolan jaio zen eta bertan eman zituen bere bizitzako lehen 35 urteak. Arrasaten ofizialtza ikasketak hasi zituen, baina hirugarren urtean etxera itzuli zen. Ordutik harakin lanean aritu da: lehenengo Legazpin, ondoren Aretxabaletako Eroskin eta ezkondu zenean Legazpiko janari-denda batean. Hau ixtera zihoan eta duela hiru urte eta erdi erretiratu berri zen Kandido Mendizabalen harategia hartu zuen. Bere zaletasun nagusia mendian ibiltzea da, baina emaztea Agiñakoa du eta azaroan San Martinak ospatuko ditu noski.


Bere 2011

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dut sekula ezer berezirik izateko gogorik izan. Baserrian bizi ginen eta gure gogoa kalera joatea zen.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea. Igandeetan Samiño edo Izazpira joaten naiz eta batzuetan Aizkorrira ere bai.

Bizitzeko toki bat?

Inguruko toki guztietan ondo moldatzen naiz: Brinkolan jaio nintzen, Zumarragan lo egiten dut, Urretxun lan, Agiñan bazkaldu...

Haragia ala arraina?

Biak gustatzen zaizkit. Etxetik kanpo arraina eskatzen dut.

Odolkia ala buzkantza?

Sarritan jateko odolkia nahiago dut, baina noizean behin buzkantza gustura jaten dut.

Behikia, txerrikia ala ardikia?

Gehien gustatzen zaidana txahal haragia da. Asko jateko samurragoa da.

Asko aldatu al dira bezeroen kontsumo ohiturak?

Legazpin lan egiten nuenean gisatzekoak eta egostekoak egun baino askoz ere gehiago saltzen ziren. Egun xerra da gehien saltzen dena.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Gazteak baldin badira, biak.

Egindako azken oparia?

Emazteari bere urtebetetze egunean oparitu nion ordularia.

Eta jasotakoa?

Alkandora edo prakak, jazteko zer edo zer.

Data bat?

Gabonak asko gustatzen zaizkit. 11 anaia-arreba gara eta Gabonetan denok elkartzen gara. Egun polita izaten da. Alabaren jaiotze eguna ere berezia izan zen, noski.

Mutil eta neska izen bana?

Irati, alabarena, eta Xabier.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV eta *Hitza*.

Gustuko telebista saioa?

Ez dut telebista asko ikusten. Pilota partidak eta batzuetan *Vaya semanita!* Irratia, berriz, asko gustatzen zait. Goizero pizten dut eta itxi arte piztuta izaten dut.

Bereziki gorroto duzuna?

Salsa rosa eta halakoak sekula ez ditut jasan.

Pelikula bat?

Gehien gustatu zaidana *El golpe* da.

Liburu bat?

Ez dut irakurtzen.

Soinu bat?

Trikitixarena.

Usain bat?

Ona baldin bada, edozein.

Janari bat?

Angulak, baina aspaldi jan nituen azkenekoz.

Ura ala...

Ardoa nahiago...

iKER

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR

construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

ZUM Edizioak